

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure enpresa erantzukizun mugatuko sozietatea da; izan ere, gu geu gara enpresako jabeak, honi buruzko erabakiak hartzen dutenak eta irabaziak eskuratzen dituztenak.

Hornitzaileei dagokienez, hainbat dira gure produktuaren ekoizpenean parte hartzen duten enpresak; materialak hornituz, alegia. Alde batetik, Leroy Merlinek eskuratuko ditugu fabrikaziorako beharrezkoak diren hainbat erremintak, hala nola, [zulagailua](#) eta [eskailera](#). Zulagailua piezak elkarri lotzeko beharrezkoa izango da, eta eskailera berriz, gure produktua muntatzerakoan altuera desberdinetan lan egiteko erabiliko da. Horrez gain, [altzairuzko barra borobila](#) eta [karratua](#) ere hornitzaile berekoak dira. Barra hauek egituraren oinarria izango dira.

Bestetik, [lineonline.es](#) enpresatik eskuratuko dugu [bihurkina](#). Tresna hau torlojuak modu zehatz eta seguruan estutzeko erabiliko da, piezak ondo finkatuta egon daitezen. Halaber, Somfy enpresak garbitzailea konektatzeko routerra eta aplikazioa ([TaHoma Switch](#)) hornituko dizkigu, motorrarekin batera ([SUNILUS io](#)). Sistema honi esker, garbitzailearen funtzionamendua modu erraz eta erosoan kontrolatu ahal izango da.

Era berean, SANTANDIMEX enpresatik arbela garbitzeko beharrezkoa den [goma](#) eskuratuko dugu. Goma hau arbelak duen zikinkeria modu eraginkorrean kentzeko erabiliko da. Bestalde, MAGOM HRC enpresak hornituko dizkigu likido garbitzailea isuriko duten [bonba hidraulikoak](#). Bonba hauek likidoaren banaketa uniforme ahalbidetuko dute.

Halaber, gure produktua ekoizteko behar dugun [toldoa](#) Amazon enpresak eskainiko digu. Toldo hau egitura metalikoari egokituko zaio eta garbiketa sistema erabili ahal izateko erabiliko da. Horrez gain, MICRODISK enpresak, arbela garbitzeko [likidoa](#) hornituko digu. Azkenik, gure produkua ekoizteko leku fiko bat behar dugunez, [lokal](#) bat alokatu dugu.